

EAJ ETA-REN PAPERETAN. ETArri atzemandako dokumentuetan Euzko Alderdi Jeltzaleko hainbat kide ageri direla jakinarazi du alderdi horrek. Ez dela berria, eta EAJk bere proiektu politikoari «inoiz baino tinkoago» eutsiko diola esan du Egibarrek.

EAJko ehundik gora kide ageri dira ETArri azken hilabeteetan atzemandako dokumentuetan

Helburuen artean Eusko Jaurlaritzako, Euzkadi Buru Batzarreko eta Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundietako buruak daude, besteak beste, EAJk baieztatu duenez



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Xabier Arzalluz EAJko lehendakaria, atzo goizean Barakaldoko Gurutzetako batzoki eraberrituaren inaugurazioan.

Akusazio horiei erantzunez, Arzalluzek adibide gisa aipatu zuen Iturgaitzek mehatxu bat jasaten duenean berehala agertzen dela hedabideetan. Aldiz, eurak mehatxatzen dituztenean, Madrilen bestela jokatzeko dutela salatu zuen: «ETAk presatuta dauka zerrenda komeni zaionerako. Baina Madrilen ez dute horretaz ezer ere esan. Gu ere mehatxatuta gaude, baina ETAKoak bagina bezala hartzen gaituzte», adierazi zuen. Arzalluzek esan zuenez, Poliziak ETArri hartutako dokumentuetan «EAJko ehundik gora kide» agertzen dira, «EBBtik hasita, Eusko Jaurlaritza, diputazioak eta abar».

Berehala hasi ziren erreakzioak. Egibarrek agerraldia egin zuen arratsaldean. Informazioa EAJrentzat ez dela berria adierazi zuen. ETAK 1998an su-etena iragarri aurretik, EAJko militanteak hil zituela oroitarazi zuen, eta su-etena apurtuz geroztik ere hainbat abertzale hil dituela erantsi. Publiko egin den informazioak hori baieztatu besterik ez duela egiten esan zuen. Hala ere, EAJkoen izenak ez daude soilik joan den astean Frantzia eginiko operazioari lotuta, azken hilabeteetan jada atera direla esan zuen, nahiz eta orain arte isilik egon diren.

Estrategian aldaketarik ez

ETAren helburuen zerrendetan EAJ, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta udaletako ordezkariak daudela baieztatu zuen Egibarrek, izenik esan gabe. Informazioen xehetasuna kasu guztietan ez dela berdina esan zuen Egibarrek. EAJko kide eta hautetsiez gain, PPko eta PSOEko kideak, enpresaburuak eta beste ageri direla adierazi zuen. Berri agentziek iturri nazionalistak aipatuz adierazi zuten Xabier Arzalluz, Juan Jose Ibarretxe, Roman Sudupe eta Josu Bergara daudela, besteak beste.

Berriaren larritasuna azpimarratu zuen Egibarrek, baina lasaitasun mezua igorritz. EAJk urduritasunik gabe erreakzionatuko duela, eta alderdiaren estrategian aldaketarik ez dela izango argi utzi zuen. «Garbi dago inoiz baino sendotasun eta tinkotasun gehiagorekin eutsiko diogula geure proiektu eta estrategia politikoari. Aurreko garai batzuetan Francok eta bere ondorengoek lortu ez zutena ez du ETAK lortuko».

ETAren «ahalmen bakarra sufriaraztea» dela esan zuen Egibarrek. «ETAk badaki hain-

BARNE MINISTERIOA

Arzalluzen hitz «doilorrak»

Xabier Arzalluzek Barakaldon eginiko hitzei berehala eman zien erantzuna Espainiako Barne Ministerioak. Arzalluzek PP kritikatu zuen EAJko kideak ETAren zerrendetan daudela jakinik, ezer esan ez dutelako, eta EAJri ETAren aritzea egotzi diotelako.

Barne Ministerioak oharra kaleratu zuen, eta Arzalluzen adierazpenak «doilortzat» jo zituen. Barne Ministerioak ETAren balizko helburuak «inoiz» ez dituela publiko egin zioen oharra. Ministerioak eskuratzen dituen datuak zuzenean eragina jasandakoei, edo EAJko Herrizain-

go Sailari, edo dagokion alderdi politikori jakinarazten dizkiola zioen oharra. Honako honetan, Ministerioa Herrizaingo Sailarekin harremanetan jarri zela erantsi zuen.

Joseba Egibarrek kritikatu zuen Ministerioak esandakoa. «Aurpegia behar dute gure portara doilorra dela esateko. Informazioa eurek esku artean izanik, behin eta berriz aritu dira esaten ETA eta EAJ gauza bera direla. Zein da doilorra?», galdetu zuen. EAJ orain arte isilik egon dela esan zuen, «baina zerbait esateko unea iritsi da, ezin baitugu jasan hau guztia, gainera, gure aurkako akusazio bihurtzea». ETAren helburuak publiko egiten ez dituztela esatea ere kritikatu zuen. Gobernuarengandik hurbil dauden hedabideek horien berri ematen dutela erantsiz.

Iñaki Uriarte | BARAKALDO
Axun Erzibengoa | DONOSTIA

EAJko kideei lasaitasun mezua igorri nahi izan zien Joseba Egibar EBBko bozeramaileak atzo arratsaldean Donostian. ETArri atzemandako zenbait papereetan EAJko ehundik gora kide agertzen direla publiko egin ondoren eman zuen prentsaurrekoa. Xabier Arzalluz alderdiko presidenteak zabaldu zuen berria goizean, Barakaldoko Gurutzetako Batzoki berrituaren inaugurazioan.

Azken egunetan PPko zenbait buruzagik EAJk eta ETAK elkar ulertzen dutela adierazi dute, eta gauza bera direla.